# Bermeo




## ARMARRIAREN DESKRIBAPENA

Urrezko hondoan, baleontzi baltza eskoialdean, lau arraunlari bogatzen eta brankan arpoilaria, balea baltz bati arpoia jaurtitzeko jarreran, dana uhin urdin eta zilarrezkoen ganean. Buruan bi otso baltz igarolari eskoialdera zerrendan, eta goialdean giza burua, bizarduna. Bordura gorria idatziarekin: *"Stemma proderi in primis Bermei"*, hizki baltzakaz.

## DESCRIPCIÓN DEL ESCUDO

En campo de oro una ballena de sable a la diestra, con cuatro remeros bogándola y en proa un arponero en actitud de lanzar el arpón a una batalla de sable, puesta sobre ondas de azur y plata. En jefe, dos lobos de sable pasantes a la diestra y en faja, superados de una cabeza humana barbada. Bordura de gules con leyenda: *"Stemma proderi in primis Bermei"*, puesta en letras de sable.

## AITAMEN HISTORIKOA

Cadaguako bailara; itsasadarra zeharkatuz Balmasedatik itsasertzeraino doan erromatarren galtzadako muturrean dago.

Bermeon erromatarren garaiko aztarnak aurkitu dira, eta, batzuen ustez, aztarnok, Flaviobriga (batzuek Bermeo zala dinoe) ondoan egoan eta Pliniok aitatu eban Oppidum Vesperies dira.

Bizkaiko lehenengo agiriak Iruñea, Araba eta Bizkaiko erregea Nafarroako erregea zan garaikoak dira. Bada Gartzia Nafarroako erregearen idatzi bat, 1051koa; antza danez garai haretan konde eta zaldun batzuk euren txakurrak bialtzen zituen monastegira eta sendiko gizonezkoak hareek gobernatzeko, eta idatzi horren bidez Erregeak askatu egin zituan Bizkaiko monastegiak betebehar horretatik. Erregeak, bere emazteak eta honeen konde eta zaldunek aldarrikatu eben ez eitela inor ausartu horrelakorik egiten. Idatzia Gartzia Nafarroako erregeak, bere emazte Estefaníak, kondeek eta erreinuko gotzainek –García de Alavak, Sanchok eta Gomesano de Nájerak– emon eben.



## RESEÑA HISTÓRICA

Situado en el extremo de la calzada romana que desde Balmaseda por el valle del Cadagua, atravesando la ría de Bilbao, llegaba hasta el litoral.

En Bermeo se han hallado restos de época romana siendo identificado, por algunos autores como el Oppidum Vesperies, del que hablaba Plinio situado junto a Flaviobriga (que algunos autores identificaban también con Bermeo).

Los primeros documentos vizcainos se calendan reinando el rey de Navarra en Iruña, en Araba y en Bizkaia. Del año 1051, es un escritura en la que el rey don García de Navarra libera a los monasterios vizcaínos de la costumbre que tenían algunos condes y caballeros de enviar sus perros a los monasterios y a hombres de su familia para que los gobernasen. El rey y su mujer, con sus condes y caballeros, proclaman que ningún hombre sea osado a intentar cosa semejante. Otorgan la escritura el rey navarro don García y su mujer doña Estefanía, a una con los obispos del Reino don García de Alava, don Sancho de Pamplona, y don Gomesano de Nájera y los condes.

## IKURRIÑA

Deskribapena: gai noblezko oihalezkoa, eta karmin kolorekoa edo kolore bizikoa. Triangelu zuzena da eta hondoan urrezko zerrendak. Erdigunean Bermeoko armarria dauka bordatuta, eta beronen erdigunea triangeluaren alderik txikienagaz paraleloa da; haretx-orriz eta ezkurrez apainduta dago. Armarriaren inguruan urrean "AYUNTAMIENTO DE BERMEO".



## BANDERA

Descripción: estará hecho de un paño de material noble, y su color será el rojo carmesí o color vivo. Será un triángulo recto, y en el fondo tendrá franjas de oro. En el centro aparece bordado el escudo de Bermeo. Su centro será paralelo con la parte más pequeña del triángulo y adornado con hojas de roble y bellotas. Alrededor del escudo, en color oro estará escrito "AYUNTAMIENTO DE BERMEO".